

Euskal Musika tresnak ezagutzen

Plaza eta Garmendiaren O+Hatz proiektuko doinuak ere entzun ziren



Multimusikala asteburu osoan Okendo inguruan

Okendo plazako karpa bihurtuko da asteburu osoan Multimusikala jaialdiaren gune nagusia. Bertan kontzertuak eskainiko dira ostiral eta larunbat gauean, bazkaldu eta afaltzeko aukera izango da eta bestalde hainbat tabernetan ere kontzertuak izango dira larunbat arratsaldean. Igandean gainera Euskal Jaia egingo da. **4. orrialdea**

Txalaparta, txistua, danbolina, xirula edo alboka... horiek izan ziren asteazken arratsaldean Manuel Lekuona kultur-etxeko aretora hurbildu ziren heldu, zein haurrek eza-gutu eta entzun ahal izan zituzten euskal musika tresnak.

Iñaki Plaza eta Ion Garmendia musikarien eskutik, aretoan zeuden guztiek tresna bakoitzaren arlo teknikoa eza-gutu zuten, hala nola, nola eta zein materialaz dagoen egina edo nola jotzen den.

Era berean, musika tresna hauekin jotzen diren doinuak ere ikasi zituzten, arin-arina, fandangoa edo biribilketa, esate baterako.

Eta saio amaitzeko euskal eta nazioarteko musika tresnak nahasiz, Iñaki eta Ionrek sortu duten O+Hatz proiektuko hainbat doinuak ezagutu ahal izan zen. •



Trikitixa bat barrutik nolako den ikusi zuten Manuel Lekuonako aretoan zeuden haur eta helduek.

Auzolanaren garrantzia

Auzolanaren kultura" liburuaren aurkezpena egin zen atzo Jalgi kafe-antzekian. Lasarte-Oriako Udalak Auzolan Elkartearekin batera antolatutako ekintza honetan, Jasone Mitxeloren egilea eta Gurutz Garmendia izan ziren auzolanari buruz hitz egin zuten.

Jasonek auzolanak gure herrian zein garrantzia izan duen azaldu zuen. Iraganean auzolana bizitza ulertzeko era bat zela eta elkarbizitzan garrantzia handia zuela azpimarratu zuen. Gurutz-ek, berriz, gaur egungo egoeraz mintzo zen. •



Jasone Mitxeloren kazetaria eta Gurutz Garmendia Auzolan ekimeneko kideak "Auzolanaren kultura" liburuaren aurkezpenean.

POLITIKA /3

Udaletxe berria erabiltzeko arazoak

GIZARTEA /5

Sorgin Jaien inguruko hausnarketa sakona egingo da

KIROLA /6

Intzako kadete mailako pilotariak finala dute gaur Ikaztegietan



ekain
liburutegia

Pablo Mutiozabal, 2. Lasarte-Oria.
Tel.: 943 366228. ekain.lib@gmail.com

Aukerarik hoberena liburu eta papertegian zure etxetik gertu
La mejor selección de libros
y papelería cerca de tu casa

Zorionak

ekar
zerbitzuak
servicios

Neure kabuz



Erresuma Batua

Bitariko arima. Hori omen du Erresuma Batua. Hala dio Osakidetza burmuin-aditu batek. Azalpen nahasi eta sakonen atzean, laburbilduz, uhar-teetako biztanleek, oraingoek eta lehengoek ere berdin, ez omen dute garbi eduki eta gaur egun ere zalantza batean bizi omen dira: europar gara ala geure gisako gara?

Geografiak hala nahita, uhartetasunak berak eransten du halako berezotasun bat. Errazago ulertzeko: ezinezkoa litzateke Mr Bean beste inon sortzea. Harrotasuna ere bai, aparteko, berezi, ezberdin izateagatik, edo halako sentitzeagatik behintzat.

Eta horrek guztiak, eragina izan du egunotan Bruselan gertatu denarekin. David Cameron lehen ministroak europatik kanpo kokatu du ia ia Londres. Kontinenteko lurraldeek batean ikusi dute denek krisitik irtetzeko bidea zein izan daitekeen. 27 herrialde dira batasunean, eta kasualitate noski, Erresuma Batua izan da akordio horretatik kanpo geratu den bakarra.

Nola gainera: euroari bere garaian muzin egin izana azpimarratuz eta hura bete bete asmatzea izan zela gogoratuz, eta Bruselako legeetara ez direla sekula makurtuko ozen azalduz. Bada, London City erresuma batuko hiriburuan, beste City bat, zonalde ekonomikoa, munduko negozio eta jardun askoren erdigune, kontrolgune, nolabaiteko Houston ekonomiko bat.

Hura babestu nahi izan dute britainiarrek, eta hori bai, garbi utziz europar izaten jarraitu nahi dutela, horrek ere bateko eta besteko onurak ekarzen dizkielako. Hori lotsarik gabe esaten duenak, garbi dago bi arima dituela, baina biak ere mesedeko zaizkiola.

Asier Odrizola

Zorion-agurrak



Raquel

Zorionak bollito! Zaindu eztarria eta pausoka pausoka larunbatean ondo pasa!



Maite

Zorionak Maite! Senarran eta semearen partetik.



Ismael

Zorionak, 36 muxu familiaren partetik. Oso ondo pasa zure egunean.



Naroa

Zorionak poxpolina, aurten kapikua, oso ondo pasa eta muxu pottolo pila pila.



Ander

Zorionak eta ondo pasa. Hiru muxu goxo zure familiaren partetik.



Ainhoa

Zorionak Ainhoa! Bost muxu handi familiaren partetik.



Odei

Zorionak, oso ondo pasa, muxu handi bat Urko, ama eta aitaren partetik, maite zaitugu!!



Imanol

Zorional!!! Abenduaren 11 In 11 urte. Muxu handi bat famili guztien partetik.



Goiatz

Zorionak zure 5. urtebetetzean! Ondo pasa etxeokoen partetik.



Haizea

Zorionak printzesa! Zure egunean primeran pasa! Muxu handia guraso eta Uxueren partetik.



Libe

Zorionak Bitxito! 4 natazko muxu eta ongi pasa! Enara eta gurasoen partetik



Zuriñe

Zu bai altxorra! Mila eta bost muxu potolo zure urtebetetzean. Zorionak!



Judit

Muxu asko zure 6. urtebetetzean Garazi, Alazne eta familia guztiaren partetik.



Xabier

Aurten badira 16! Ondo pasa! Gurasoak, Josu eta Aneren partetik.



Unax

Zorionak maitia! hiru muxu handi familiaren partetik.

Azoka txikia

Ekaintza inmobiliarioak

- Garaje bat alokatzen da prezio onean, Zumaburuko Libertoren eraikinean, interesatuak deitu dezatela 667 812 940 telefonora.
- Logela alokatzen da Lasarte-Oriako erdialdean. Pertsona arduratsu eta garbia bilatzen da. 230 euro + gastuak. 686 932 714
- Pisia alokatzen da Aralar plaza-ko 6. zenbakian. Harremanetarako 665 748 722.

Salerosketak

- Opel Corsa 1.4 Twinport Ecotec 66kw/90cv salgai. Harremanetarako telefonoa 678 332 646 edo ibagolet@gmail.com.

Lan-ekaintza

- Etxeko lanetarako eta umeak

zaintzeko emakume bat behar da. Goizez bakarrik. Harreman-telefonoa: 943 364 618.

- Biyak Bat erretiratuaren elkartek joste-lanak egiten dituen begiralea behar du. Interesatuak elkarteko bulegora hurbildu behar dira, asteleheneetik ostiralera, 10:30etik 12:30era.
- Lan egiteko prest nago, umeak eta edadetuak zaintzeko modu finkoan. Interno bezela ahal bada. 943365149

Lan-eskariak

- Erizaintza eta geriatrian trebatutako gazte arduratsuak zaharrak zaintzen lana egingo luke. 679 526 305

Bestelakoak

- Arratoi mestizo urte eta erdiko zakurra oparitzen da. Oso leiala. 666 454 930

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Heriotzak

- Juan Perez Sanz, abenduaren 14an, 83 urte zituela.
- On Jose Maria Arrizubieta Echeverria, abenduaren 12an, 95 urte zituela.

Jaiotzak

- Aroa Montero Gomez, abenduaren 10ean
- Daniela Silva Muñoz, abenduaren 10ean
- Gorka Cuadrado Garcia, abenduaren 9an
- Eider Monroy Martin, abenduaren 7an
- Oihan Martin Hueso, abenduaren 6an
- Enara Perez Cairo, abenduaren 5ean
- Xuhar Macazaga Hueso, abenduaren 1ean

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 16

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Larunbata, 17

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Igandea, 18

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Astelehena, 19

Urbisondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Asteartea, 20

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteazkena, 21

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Osteguna, 22

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen irizti-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Udaletxe berria erabiltzeko arazoak

Udalak 600.000 euro gehiago ordaindu behar dizkio Udaletxea eraiki duen enpresari

Asteartean burutu zen Udaltzarrean Udaletxe berriko obren kontratuaren aldaketa onartu zen.

Udaltzarrean Hirigintza-ko batzorde buruak, Nerea Sanchezek azaldu zuenez, Udaletxe berria eraikitzean sortu ziren arazo eta aldaketek ordaindu behar dizkio Udalak enpresa eraikitzaileari.

Honen ondorioz, kontratuaren aldaketa onartu behar da, nahiz eta "informazio hau guztia, azken momentuan jakin dugun". Izan ere, Nereak onartu zuenaren arabera, "bestela, ez digute Udaletxe berria emango eta ezingo da erabili".

Aldaketa onartu zen EAJ-ren abstentzioarekin, euren ustez, "ezin delako ordaindu gabe utzi. Baina obra hauei buruz eman den informazioa ez da egokia izan. 600.000 euro ordaindu behar direla, orain jakin dugu".

Lokalen erabilera aldaketa

Bestalde, PSE-EEK lokalen erabilera aldaketari buruzko araudia berritzeak moztioa aurkeztu zuen, hauek etxebizitzak bilakatzeko. Baina ez zen onartua izan.

Nerea Sanchezek azaldu zuenez, lehenengo aurreko legealdian eskainitako lizentziak aztertu eta esperientzi horren hausnarketa egin behar da. Eta gai hori Hirigintza batzordean erabaki behar den gauza zela azpimarratu zuen.

Azalpenak

Era berean, Bilduko Tasio Arriabalagak eta LOHP Ana Isabel Prietok PSE-EEK hainbat komunikabideetan argitaratu



Udaletxe berria erabili ahal izateko 600.000 euro ordaindu behar ditu Udalak.

emandako informazioari buruzko kritika egin zuten.

Tasiok *Kale kultur* ekimenari buruz aritu zen. Kultur-etxe-ko kafetegian egiten diren kontzertu eta ekitaldiek azken hilabeteetan beherakada handia izan dutela jakin arazi zuten eta horregatik, ekimenari planteamendu berri bat ematea pentsatu zutela, kultura kalera atera eta herritarrei gerturatu.

Honetaz gain, azken aldian, kontzertuetan taberna kudeatzeak gastuak bakarrik sortzen zituela eta inork kudeatu nahi ez zuela aipatu zuten.

Bestalde, LOHP plataformako Ana Isabel Prietok Udaltzarrean herritarrek parte hartu ahal izateaz poztu zen eta PSE-k Zerbitzu Publikoari buruz egindako kritikei erantzun zuten.

Batetik, lurazpiko edukiontziek zaborra ezkutatu dutela eta hauen mekanismoak arazo asko sortzen dituela azaldu zuten. Datuak eskaini zituen

eta matxuretako faktura 23.000 eurotaraino iristen dela azpimarratu zuen.

Bestalde, Isla Plazan jarri duten parkea legealdi honetan erositakoa dela jakin arazi zuten eta hori berresteko, alkatetzako dekretua eta parkearen faktura aurkeztu zituen.

Galderak

Azkenik, PSE-EEK jangela, hiri-busa eta aurrekontuei buruzko egoerari buruz galdetu zuten.

Jangelari dagokionez, Hezkuntza-ko batzorde buruak, Boris Nogalesek aipatu zuenez, Lakuara joan eta Landaberri eta Garaikoetxean bertan jangelak jartzeko eta bertan janaria egiteko eskatu zitoten Udaltzarreko kideek. Baina hori ezinezkoa zela eta beste proposamen bat egin zuten Hezkuntza-ko jangela Michelinen mantendu, janaria katering-ekoa izatea eta garraioa ziurtatzea.

Ondorioz, gurasoekin bilera egin jarraitu behar dute

hurrengoan, proposamen zehatzagoa aurkezteko.

Estitxu Alkorta Ogasune-ko batzorde buruak, berriz aurrekontuen zirriborroa egin dagoela eta aurten aurkeztu saiatuko direla azaldu zuen. Era berean, talde politikoek ekarpenentzako epe bat ireki delako aipatu zuten eta aurrekontu erreala eta koardatuak izateko arazo handiak izan dituztela azpimarratu zuten.

Zerbitzu Publikoetako buruak, Ana Prietok hiribusaren egoera azaldu zuen.

"Irregularitateak egon dira jardueran eta esperientzia pilotoko dirua orain ordaindu behar izan zaio TSST-ri" aipatu zuten eta jarraian "aurtengo egoera pirata saihesteko hitzarmena sinatuko da".

Honetaz gain, aurrerantzean, zerbitzua nola izan behar den finkatu behar dela eta zerbitzua konpainia desberdinei irekiko zaiela jakin arazi zuten.

Batzarra amaitu baino lehen, alkateak langileen komisioko idatzia irakurri zuten.

Honen bitartez, maiatzaren 5 eta 9aren bitartean udaltzainek jarri zituzten isunen azalpena eskaini zuten.

Langileen arabera, alkate ohia ordenantza jarraitu ezean espedienteak irekiko zituela mehatxatu zituen eta horren ondorioz, haien lana egin eta isunak jarri ez ezik, tabernen itxiera ordutegia gainbegiratu zuten eta beste hainbat eginkizun bete zituzten.

Gauzak honela, Zaballos jaunari esandakoaren zuzenketa eskatu diote.

MUSIKA

Alboka eta Alboka Txiki abesbatzen Gabonetako kontzertua

Urtero bezala, Alboka eta Alboka Txiki abesbatzek Donostiako Mariaren Lagundia Ikastetxeko Txepetxa abesbatzarekin batera Eguberriko giroa ekarriko dute igandean, abenduaren 18an, 12:30ean, Ama Brigitarren komentuan eskainiko duten kontzertuarekin.

Besteak beste, "Gabeko izar", "Birjiña maite" edo "Mesias sarritan" euskal abestiak, zein Estatuko eta nazioartekoak gabon kantak, "Stille nacht" edo "Deck the hall", entzungo dira komentuko kaperan.

MENDIA

Ostadarreko mendiko sailak federatzea gomendatzen du

Mendian, eskalada, eski edo btt-an dabilzaten herritarrei federatzea gomendatzen die Ostadar SKT-ko Mendiko sailak.

Horretarako, oraindik federatuak ez direnek Ostadarreko egoitzara hurbildu eta bertan bete ditzakete agiri guztiak. Atalean azaldu diguten, lehengo federatzeak azken eguna, abenduaren 21a izango da.

Bestalde, Mendiko sailari bultzada bat eman nahian, urtarrilaren 12an, arratsaldeko 18:30ean bilera bat egingo dute mendiko ataleko talde lana osatzeko. Beraz, saileko kide diren herritarrei bilera joateko deialdia egiten diete.

PRESOAK

Opari bilketako azken eguna

Lasarte-Oriako parrokiak Martutenen preso daudenentzako gauzak jasoko ditu Okendo-ko etxe zaharrean eta gaur da azken eguna

Presoei ondo datozkien zerrenda bat kaleratu dute eta bertan dira, besteak beste, barruko arropa berriak eta galtzerdiak, telefono txartelak (txipik gabekoak, 5eurokoak), tabako gorria, metxeroak, hortzak garbitzeko eskuila eta pasta, txanpua eta gela, pila, kartazal eta zigiluak, turroi biguna, txankletak eta kirol oinetakoak.

Abenduaren 24an Martuteneko espetxera joango dira presoei bisita egin eta opariak banatzera.

Euskal Presoen eskubideen alde agertu da Udaltzarra

Udaltzarrean Bilduk Euskal Presoen eskubideen alde aurkeztutako moztioa eztabaidatzeko bazen ere, bai EAJ-k, eta baita PSE-EEK ere aurkako moztioak aurkeztu zituzten batzarrean.

Lehenik, alderdi sozialistaren proposamena aztertu eta atzera bota zen.

Ostean, EAJ-ren moztioaren txanda izan zen. Baina Bildurekin negoziaketa egin eta transakzio-moztioa aurkeztu zuten azkenean.

Honen bitartez, Lasarte-Oriako Udalak Eusko Legebiltzarra 2006ko urriaren 6an euskal presoen eskubideen

defentsarako konpromisoa berresten du eta urtarrilaren 7an Bilbon egingo den Manifestazioarako deia egiten du.

Bozkatzeko orduan, PSE-EEK aurka egin zuten eta lau abstentzio egon ziren, LOHP-ko bi kideak, PP eta Marisa Zubiri. Berdinketa sortu zenez, bigarren bozka egin eta emaitza bera lortu zen. Azkenean, alkatearen kalitatezko bozka moztioa onartzea ekarri zuen.

Mobilizazioak

Urtarrilaren 7ko manifestazioaren harira, egun hauetan Donostiako kanpusean baraualdia egin ari dira.



LAB sindikatuko kideak Michelin enpresako harreran egon ziren. LAB SINDIKATUA

Astelehenean lehen txanda sindikatuek egin zuten eta honen batera LAB sindikatuko kideek hainbat ekintza burutu zituzten EHko eskualde guztietan. Lasarte-Oria eta Usurbilgo LABeko delegatuak Michelingo atarian bildu dira Bilboko manifestazioari babesa

azaldu eta era berean esku orri informatibo bat banatzeko.

Gaur, aldiz, Bildu-ko zinegotzien txanda izango da.

Gure herriko udal taldeak ere baraua egingo du eta herritarrei kontzentrazioarako deia egin diete, gaur eguerdiko 12:00tan, udalaren aurrean.

Multimusikala 0 20:00etatik aurrera

- Okendo plazan hasiko da gaur musika jaialdia pintxo pote, bertso eta txalaparta doinuekin
- Igandean bukatuko da herriko beste hainbat elkartek antolatutako Neguko Euskal Jaiarekin

Okendo plazak hartuko du asteburuan zehar besteak beste kontzertuak jasoko dituen karpa handia. Bertan bazkaldu eta afaltzeko aukera izango da baita aipatu bezala, zenbait kontzertu entzuteko parada ere. Karpan iluntzeko 20:00etan jaialdiaren aurkezpen ekitaldia izango da gaur. Bertan Iñaki, Lurra eta Dakara tabernekek emandako pintxoekin, pintxo potea egingo da, Amaia Agirrerren bertsoak eta Txalaparta doinuek lagun.



40 de Fiebre taldekoak Multimusikalean jotzeko elkartu dira berriro. Ostiral gauean joko dute Okendon Oi Salimos, Bartzelonako La Kinky Beat eta Rude Kanka Sound System-ekin.

Maidier AZURMENDI

Okendo plazan jarriko den kanpan lehen kontzertuak 22:00etatik aurrera hasiko dira, hain juxtu gaur, Oi Salimos, 40 de fiebre, Bartzelonako La Kinky Beat eta Rude Kanka Sound System taldeek joko dute.

Honetan sartzeko bost euroko bono-laguntza sarrera ordaindu beharko dute langileek eta langabetuei borondatea eskatuko zaie.

Sarrera eta autogestioa

Kolektiboaren helburua autogestioaren ardatzari eustea izan da eta aurtengoan ez du koadriletako bono-laguntzarik

atera baina bai aipatutako bost euroko sarrera. Honakoa karpako gaurko kontzertuetara sartzeko soilik izango da baliogarria, izan ere, biharko kontzertu guztiak doakoak izatea erabaki du antolakuntzak.

Larunbatean, eguerdian hasiko dira kontzertuak Arri Jeffe-ren musikarekin eta Famili Mbolo perkusio jole senegaldarraren eskutik.

Hauekin batera graffiti erakustaldia izango da karpan eta Udaletxe berriaren atzean Break Dance eta Rap erakustaldiak egingo dira. Gainera Askatasunaren plazan aurreikusita zegoen murala eguraldi txarra egingo balu, Institutuko

zubian burutuko dute Euskal Herriko hainbat txokotatik iritsitako hogeitaz artistek.

Giroa kalean

Herriko kaleetan zehar Iruñeatik etorritako Muthiko Alaiak peñaren txaranga eta Zozongo batukada ibiliko dira giroa alaitzen.

Gainera, 13:00etatik aurrera kontzertu ezberdinak izango dira Artizar, Jalgi, Abend, Ilargi, Mauren tabernan eta Trumoi ondoko auto garbategian.

Antolatzaileek herritarrak festarako animatzen ditu eta irekiera ekitaldira ere gerturatzeko gonbitea luzatzen dute. Horrela izanda, musika eta jai

giroak hartuko du Lasarte-Oria gaurtik hasi eta igandera bitartean. Karpan ostiralean festa giroa goizeko 4:00ak arte luzatzea espero da eta larunbatean berri, 5:00ak bitartean.

Herri bazkariak

Larunbat eguerdian, rap taldeen eta Iban Nikolairen saioen ostean herri bazkaria izango da herrian ezagunak diren Juantxo, Lasa eta koardilaren eskutik.

Bertarako tiketak Trumoi eta Ilargi tabernetan daude salgai baina antolakuntzatik 150 lagunentzat tokia izango dela gogoratzen dute, beraz hauek erosteko azkar ibiltze-

ko gomendioa egin da. Igandeko bazkarirako tiketak berri, Artizar eta Jalgin eskuratu beharko dira eta kasu honetan ere 150 lagunentzako lekua egongo da.

Multimusikala 0 rekin antolatzaileek ziklo bat itxi nahi dute, duela hamar urte hasitako zikloa.

Maiatzean Multimusikala 10 izenarekin jaialdiaren urteurrena behar bezala ospatu nahi dute antolatzaileek punta puntako musika talde eta ekintzekin. Honetarako lanean hasiak dira eta besteak beste, jaialdia espazio handiago batean antolatzea pentsatzen ari dira. •

Emakume baten aurkako eraso salatzen du Udalak

Indarkeria kasua egon zen lehengo asteburuan Lasarte-Orian eta hau gaitzesteko Udalak deitutako asteazken arratsaldean konzentrazioa egin zen.

Egoera hau, Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako batzorde buruak Udaltzaren azaldu zuenez, "prensarengatik jakin genuen. Izan ere, Donostiari dagokio gaia eramatea, emakume bertan erroldatua dagoelako".

Hala ere, Lasarte-Oriako Udalak gaiari buruz gehiago jakin nahi izan du eta Gizarte Zerbitzuetako buru Lizarragak jakitera eman zuenez, erasotutako emakumeak ez du salaketarik jarriko.

Honetaz gain, Lasarte-Orian honelako egoerak ekiditeko, indarkeriaren aurkako kontzientziazioa eta sentibilizazio kanpainak landuko direla adierazi zuen.

Gertaera

Larunbatean atxilotu zuten 34 urteko gizonezkoa Lasarte-Orian ustez genero indarkeria delitua egotzita. Ertzaintzak jakinarazi zuenez, bikotekideari eraso egin zion eta eskailere-tatik behera bota. Eraso ikusi zuen pertsona bat emakumeari laguntzen saiatu zen, baina, lekukoaren eta erasotzailearen arteko liskarra hasi, eta tirabiran zirela ertzaintza heldu eta hau atxilotu egin zuen. •



Herriko alderdi politiko ezberdinetako ordezkariek eta herritarrak bildu ziren aurreko asteburuko indarkeria kasua salatzen.

Sorgin Jaien inguruko hausnarketa

- Hamar urtetako jarduna aztertu eta gerorako asmo, helburu eta eredia finkatu nahi dituzte
- Gabonen ostean hiru bilera egingo dira eztabaida-gaiak zehazten dituen txostenean oinarrituz

Sorgin Jaien lehenari eta etorkizunari buruzko hausnarketa burutuko da urtarrilean hasi eta otsailera bitartean. Ostiral arratsaldetan jarri da eztabaiden hitzordua, urtarrilaren 13 eta 27an eta otsailaren 3an, Kultur Etxeko 3. solairuan, gazteen eta ikasleen presentzia ziurtatu nahi dutelako. Beste bi astetan hausnarketaren ondorioak finkatu eta kaleratuko dituzte. Momentuz, eztabaidaren bultzatzaileek, Sorgin Jaiei buruz prestatu duten txosten mardula zabaltzen ari dira gazteei, ikasleei, jaien antolaketan aritu direnei, herri mugimendu taldeetako partaideei eta parte hartu nahi duen edonori.

Jon ALTUNA IZA

Sorgin jaiak antolatzen dituen batzordeak eztabaida sakona ireki du "ea beharrezkoak ote garen galdetetik hasita aurrera begira, datozen urteetako ildoak eta zein helbururekin lan egingo den finkatzeko". Abiapuntu honek argi erakusten du mar txan jarri den eztabaidaren sakotasun eta garrantzia.

2001ean sortu ziren Sorgin Jaia Udalak txosnak debekatu zituenean. Orduetik gauzak asko aldatu dira, "bai Sorgin Jaie barruan, bai gizartearen oro har", eta txostenean esaten denez, gaur egun "ez dira bi hilabetetan antola daitezkeen jaiak. 25.000 eurotik gorako aurrekontua, muntaia handia eta egitarau oso zabala dute, herriaren parte hartze handikoak dira eta honek guztiak lan eskerga eskatzen du".

Hausnarketaren bultzatzaileek adierazi dutenez, antolatzaileraren artean beti egon dira

eztabaidak, hain juxtu jaiak antolatzen ari zirenean eta eztabaidarako denborarik ez zegoenean, beraz erabakiak momentuan bertan, presaka eta sakon hausnartu gabe hartu dira bertan zeudenen artean. Horregatik erabaki dute hausnarketa egitea eta etorkizuneko bidea ondo zehaztea.

Hamar urte lanean

Eztabaidaren oinarri izango den txostenean hamar urte hauetako ibilbidea, eztabaida, helburu eta Udalarekin izandako hartu-emanak laburtzen dira batetik, eta aurrera begira, antolaketari aurre egiteko eztabaida "sakon" baten behar "argi eta garbia" aipatzen da: "Norabiderik gabeko belardiko bilakatzeko arriskuan dago Sorgin Jaia. Horretarako dator eztabaida prozesu hau".

Eztabaidaren bultzatzaileek ustez, "lehen debekutik hamar urte igaro ostean, beste egoera baten aurrean kokatzen gara, herriaren babesa



Sorgin Jaia beharrezkoak ote diren eztabaidatzetik hasita, hausnarketa sakona egingo dute jai alternatiboiei buruz.

nabarmen hazi da. Orduko gazteek gaurko gazteei leku egin die, ideia berriak hartu eta zaharrak baztertu dira, txapelketa, joko, saio eta bestelako hamarnaka kontu probatu dira. Baina aurrera begira, helburu eta eronka berriak markatzeko garaia heldu da".

Herritar guztiak gonbidatu dituzte hausnarketara: "ongi etorri eztabaidara, goazen aste hauetan zehaztera datorren urteetan nolako jaiak nahi ote ditugun. Besterik gabe eztabaida hastera doa eta ahalik eta zabalena izatea lortu behar dugu".

Bultzatzaileek adierazi

dutenez bileretan gaiaren mamira jotzeko egun bakoitzean arlo bat jorratuko da eta eztabaiden denbora neurtua izango da: Horrela 13an antolaketara bera aztertuko da, 27an Sorgin Jaie helburu eta herri mugimenduaren papera eta otsailaren 3an Udalarekin hartu-emanik izan behar den eta baldin bada nolakoa izan behar duen.

Eztabaida zabala

Sorgin jaien izatea bera ere eztabaidan jarri dute, jaiak beharrezkoak ote diren, "zergatik eta zertarako?" eta besteak beste antolakuntza, herri mugimendu eta ekimenekin lotura, udalarekiko harremanak, gunearen kokapena, herriko eragileen parte hartzea edota sostengu ekonomikoa proposatu dituzte eztabaidarako.

Proposamen konkretu batzuek egiten dira txostenean, esaterako koadrilek antolakuntzan parte hartzea edota hartu beharreko erabakiak zehazten dira: legearen eremutik kanpo segituko duen Sorgin Jaia ala erregistratu egingo den, orain arte bezala Udalatik dirurik jaso gabe segituko duen ala Udalarekin zein hartu-eman eredu izango duen, besteak beste. •

Gabonetako antzezlan hunkigarria Kultur Etxean

Lan eta Lan Beti Lan elkarte-ko kideek azken urtetako ohiturari jarraiki, lan berri bat antzeztuko dute gaur 20:00etan Manuel Lekuona Kultur etxean. Kasu honetan "La larga cena de Navidad" antzezlana aurkeztuko dute, "Gabonetako giroan murgiltzeko antzezlan komiko eta hunkigarria" Ana Miranda zuzendariaren hitzetan.

Herriko Helduentzako Eskolan jaio zen antzerki taldea 1999. urtean eta geroztik, urtero hutsik egin gabe hainbat antzezlan taularatu dituzte. Gaurkoan Bollardo familiaren azken 90 urtetako gabon gauak izango dituzte abiapuntu. "Denboraren ira-

ganaz hitz egiten du antzezlana. Familiaren baitan heriotzek eta jaiotzek duten eraginaz eta galera hauek denborarekin senideen artean zein modutan onartzen diren." Denbora tarte honetan, 90 Gabon gauen iraganean, gerra bat izango da tarteko eta honetan parte hartuko dute familiako zenbait kidek.

Aktore lanetan hamabi lagun izango dira eta lehen aldiz, taldearekin batera, Ana Miranda zuzendariak pertsonaia bat egingo du.

Saioa 20:00etan hasiko da eta sarrerak 2 eurotan daude salgai. Antzerkia publiko guztiarentzako da. •



Antzerki taldeko kideak aste honetan Kultur etxean burututako entseguan.

2012an kiroldegiko guneak alokatzeko eskaera hilak 20ra arte egin daiteke

Kirolen Udal Zerbitzuak Kirol Guneko pilotalekua eta pista, Kiroldegiko pista, padel kantxa edo Trinketa 2012 urtean zerbait egun eta ordutan alokatzeko aukera eskaini du.

Abenduaren 20a bitarteko epea ireki da interesatuek udalaren kirol instalazioetako atarietan eskaera hori egin dezaten.

Orduak, abenduaren 21ean 19:00etan Udalaren Kiroldegian egingo den zozketan banatuko dira.

Kirol zerbitzuak azaldu duenez, eskaera bakoitzari zenbaki bat emango zaio, beti ere eskatzailea zozketara bertaratu bada. Gainera, abonatuak izango dute lehentasuna.

Bestalde, zozketan zenbakiak atera ahala orduak aukeratu dira.

Akuraren ordainketa, banku bidez helbideratuko da eta bi zatitan egingo da, bata urtearen lehenengo sei hilabetean eta gainerakoa, bigarren sei hilabetean. Kirol Zerbitzuak gogoratzen duenez, ez abonatuak, aparte, sarrera ordainduko dute.

Honetaz gain, Kirolen Zerbitzuak instalazioa behar izanez gero, dagokien jokalariei aste bat lehenago abisua eman eta ordaindutako dirua itzuliko diela jakin arazi du.

Arteaga eta Aranguren pilotariek ezker hormako finala jokatuko dute

Zazpi Iturriren aurka izango da gaur 19:30ean, Ikaztegiako Udal-pilotalekuan

Ezker hormako txapelketako finala jokatuko du gaur 19:30ean, Ikaztegiako udal-pilotalekuan Intzako I. Mailako kadetek. Axier Arteaga eta Mikel Aranguren osatzen duten bikotea Zazpi Iturri-ko J. Altuna eta J. Murua bikotearen aurka jokatuko du partida garrantzitsua.

Finaleko partida zaila izango da herritarrentzat. Lehengo fasean izan zuten norgehiagokan Zazpi Iturriko bikoteak, J. Altuna eta J. Murua 22 eta 7 irabazi baitzuten.

Gainera, "denbora gehiago izan dute partida prestatzeko," adierazi digu Solano entrenatzaileak.

Izan ere, azaroaren 25an, Zapi Iturrik zuzenean lortu zuen sailkapena lehenengo faseko irabazlea izateagatik.

Herriko bikoteak aldiz, duela bi aste lortu zuten finalerako txartela, Michelingo pilotalekuan jokatu zen partidana. Honetan 22 eta 13 gailendu ziren Aurrera Saiazeko J. Chiapuso eta A. Erauskini.

II kadetea hirugarren

Bestalde, II. mailako kadetek ere finalerdia jokatu zuten larunbatean.



Intzako kadetek Zazpi Iturriren aurka jokatu beharko dute gaur finalean.

Halabaina, Xabi Rekondo eta Aritz Solanok osatutako bikoteak 14 eta 22 galdu zuten Zaldibiko Gailurrerantz elkarteko A. Elizegi eta A. Oriaren aurka eta finaleratik kanpo geratu zen.

Joxe Felix Solanok azaldu duenez, "Bikote aldaketa bat izan genuen, Xabi Prietok ezin izan zuen jokatu eta Xabi Rekondok hartu zuen bere lekua. Ahal zutena egin zuten".

Hala ere, partidana lortuta-tantoekin bere mailako hirugarren postua lortu dutela

ere, aipatu du Intzako entrenatzaileak.

Loidi-Barrenen ere finalak

Era berean, TXINTXARRIKO aurreko zembakian aurreratzen genuen bezala, larunbatean Gupril Aulkiko Gomazko Paletako Txapelketa finala izango da Loidi-Barrenko pilotalekuan. Baina orduetarik aldaketa izango da, finala 10:00etatik aurrera jokatuko baita.

Honetan hiru bikotek Urko eta Patxi Fadrique herri-tarrak, Beñat eta Andoni eta

Edurne eta Edortak haien arteko ligaxka jokatuko dute.

Partida hauetan lortutako emaitzen arabera jakingo da zein den lehenengo txapelketa honetako irabazlea.

Honen ostean, 11:30ean, Gipuzkoako Ezker hormako III. mailako gomazko paletako finala, Atxurbide-Lagunak ikusi ahalgo dute pilotalekura hurbiltzen diren herritarrek.

Buruntzaldea IKT

Kirolez aldatuz, Buruntzaldea IKT-k Gipuzkoako Klubuen Kopan parte hartu zuen abenduaren 3 eta 4ko asteburuan.

Taldeko mutil eta neskekin lan ona egin zuten eta guztiek markak hobetzen jarraitu zuten eta Kluben sailkapen orokorreko bosgarren postua eskuratu zuten.

Mutilen mailan, sailkapenean laugarren postua eskuratu zuten. Borja Apeztegia entrenatzailearen esanetan, "ezin izan dute aurreko urteko hirugarren postua berretsi. Hala ere, aurreko urtean baino puntuazio altuagoa izan dute".

Neskak, aldiz, zortzigarren postuarekin konformatu behar izan ziren, "kopurua ez baita proba guztiak ondo betetzeko iristen," azaldu zuen Buruntzaldea IKT-ko entrenatzaileak. •

Kiroldegiko agenda

■ FUTBOLA ■

Larunbata 17

09:30ean, Lagun Onak-Ostadar (Infantil txikiak, kopa) Garmendipe, Azpeitian.
09:45ean, Ostadar-Hernani (Infantilen Ohorezko Maila) Michelinen.
11:15ean, Texas Lasartearra-Vasconia (I. Jubenila) Michelinen.
13:00etan, Ostadar-Touring (Kadeteen Ohorezko Maila) Michelinen.
14:30ean, Ostadar-Hernani (I. Kadetea) Michelinen.
16:00etan, Texas Lasartearra-Danena (I. Erregionala) Michelinen.
17:45ean, Ostadar-Tolosa (Erregional Gorena) Michelinen.
18:00etan, Trintxerpe-Ostadar (I. Erregionala) Trintxer, Donostian.

Igandea 18

09:45ean, Ostadar-Euskalduna (Alebinak) Usabal, Tolosan.
16:00etan, Sporting de Herrera-Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila) Herrera, Donostian.

■ ARETO FUTBOLA ■

Ostirala 16

HERRIKO TXAPELKETA
Areto-futboleko pista
19:30an, Ilargi-Oria kristal degia
20:30ean, ISU Leihoak-Txindoki

Larunbata 17

15:30ean, EHU Arabako Kanpusa-ISU Leihoak (Euskal Liga)
C.C. Iparralde, Gasteizen.
17:30ean, Buruntza K.T. Aldaz H.K.-Meatzari (Nazional B maila)
 Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista
09:10ean, Indaux-Balardi
10:10ean, Buenetxea-Trumoi
11:10ean, Izkiña-El Punto
12:10ean, Viña del Mar-Los Tiburones Rojos
13:10ean, Izarra-Naiban
14:10ean, Ayete-El Bar de Mau

■ PILOTA ■

Ostirala 16

EZKER HORMAKO ESKUZ BINAKAKO
I. KADETE MAILAKO FINALA
Ikaztegiako udaleko pilotalekuan
19:30etan, Zazpi Iturri-Intza

■ PALA ■

Larunbata 17

GURPIL AULKIKO GOMAZKO PALETAKO TXAPELKETA FINALA
10:00etatik aurrera
 Urko eta Patxi-Andoni eta Beñat Urko eta Patxi-Edurne eta Edorta Andoni eta Beñat-Edurne eta Edorta

■ ATLETISMO ■

Larunbata 17

10:00etan, Landaberrri eta Sasoea ikastetxeetako atleta gazteek alebin eta infantil mailako eskolarteko pista-jardunaldia dute, Antonio Elorza belodromoan, Donostian.
16:45ean, herriko eta LOKEko atletek partehartze askeko probak

dituzte, Antonio Elorza belodromoan, Donostian.

17:00etan, herriko hainbat atletek 31. Hondartzako Krosean parte hartuko dute, Donostian.
22:30ean, herriko hainbat atletek Zizurkilgo Gau krossa proban parte hartuko dute.

■ IGERIKETA ■

Larunbata 17

09:30ean, Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior, promesa eta absolutuak Hernaniko Sarian izango dira lehiatzen, Hernanin.
16:00etan, Buruntzaldea IKT -ko benjamin eta alebinak San Esteban Sarian izango dira lehiatzen, Oiartzunen.

■ TXIRRINDULARITZA ■

Igandea 18

10:00etan, Bazpi txirrindularitza eskolako gazte pistako Gipuzkoako trofeoako 7. jardunaldia dute, Antonio Elorza belodromoan, Donostian.

■ JUDO ■

Larunbata 17

10:30tik aurrera, LOKEko kadete mailako judokak Espainiako Super kopa barruan dagoen, Iruñeako nazioarteko torneoaren parte hartuko dute, Mendillorri kiroldegian, Iruñean.

Igandea 18

10:00etik aurrera, LOKEko judoek senior mailako Euskadiko txapelketa parte hartuko dute, Lezon.

■ ERRUGBY ■

Igandea 18

10:30tik aurrera, Beltzak Ostadar Jalai Errugby eskolako benjamin eta alebinek topaketa dute, Anoetako Mini estadioan, Donostian.
10:30tik aurrera, Beltzak Ostadar Jalai Errugby eskolako infantil ez federatuek topaketa dute, Aieteko Errugby zelaian, Donostian.
11:00etan, Beltzak Ostadar Jalai-La Unica (Infantil federatuak) Iruñean.

Egunero

Erakusketa

ESTUDIO DEL PINTOR akademia-ko ikasleen erakusketa. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **egun osoa**



Ostirala, 16

Eguberrietako jardunaldiak

ELIKADURAREN BIDEZ PREBENITZEA ETA EGOKITZEA hitzaldia G. PRADAREN eskutik, Eguberrietako jardunaldien barruan. VILLA MIRENTXUN, **19:00etan**,

Antzerkia

LAN ETA LAN BETI LAN ANTZERKI TALDEAK "LA LARGA CENA DE NAVIDAD" antzezlan eskainiko du. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **20:00etan**, GAZTELANIAZ. **Sarrera, 2 euro.**

Pop rock gaua

ROCK PRIVADO eta LATITUD 43N taldeen eskutik pop rock gaua izango da. ABEND KAFE-ANTZOKIAN, **00:00etan.**

Igandea, 18

Kontzertua

ALBOKA eta ALBOKA TXIKI ABESBATZEK, TXEPETA abesbatzaren laguntzaz, EGUBERRIETAKO KONTZERTUA eskainiko dute. AMA BRIGITARREN KOMENTUAN, **12:30ean.**

Zinea

OLENTZERO ETA IRATZOEN JAUNTXOA marrazki bizidunetako filma eskainiko dute. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **17:00etan, EUSKARAZ. Sarrera, 3,30 euro.**

"Irene" liburuaren aurkezpena

NORDIA L. PÉREZ ALTAMIRANO idazle managurraren "IRENE" liburuaren aurkezpena. Idazlea Ordizian bizi da eta bere lehenengo liburua du gaur aurkezten duena. Liburu honen bidez, Euskal Herriko, zein Nikaraguako kultura ezagutzera eman nahi ditu. Hau guztia Irene gaztearen ikuspegitik egiten du. Irene gurasoei arazoak sortzen dizkien gaztea da, baina gertaera batzuen ostean, guztia aldatuko da.

OSTIRALA 16
18:00ETAN
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN
GAZTELERAZ

Asteazkena, 21

Santo Tomas azoka

Baserritaren produktuak, taloak, gaztainak, dantza, musika eta txerria izango dira Ttakun K.E.-k antolatzen duen Santo Tomaseko azokan. OKENDO PLAZAN, **17:00etatik aurrera.**

Osteguna, 22

Gabonetako Haur parkea

Haurrentzako Gabonetako parkea irekiko da, puzgarriak, tailerrak, ludoteka, irakurketa txokoa, jolas erraldoiak, bideo jokoak, zirku eskola, futbolina etab. izango dira. MICHELIN KIROL GUNEKO PILOTALEKUAN, **11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.**

Kontzertua

UDAL MUSIKA ESKOLAKO ikasleek EGUBERRIETAKO KONTZERTUA eskainiko dute. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:00etan.**

Argia eguna

"BIDAIA INTIMOAK" lau lagunek euskara ikasteko erabakiaz eta prozesuaz egindako dokumentala eskainiko da Argia egunean. Dokumentala AEK eta Korrika 16rentzat egin zen. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **21:30ean.**



Oharrak

Zabaletako Olentzeroa

Zabaletako auzokideak, Olentzerorekin batera, abestera aterako dira abenduaren 24ean, goizean 10:00etan. Antonio plazatik abiatu eta auzoan, zein baserrietan gabon kantak abestuko dituzte.

Ahotsak prestatzeko, abenduaren 20an, astearta eta abenduaren 23an, ostirala, 19:30etan auzoko plazan bilera egingo dute.

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da abenduaren 23a, ostirala, arratsaldeko 17:00etan.

Gasolina merkeagoa Aterpea-rekin

Oriako Allerru gasolindegian depositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrak, ordaintza egiteko garaian, %2ko beherapena izango dutela gogoratu du Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak.

Aterpea Merkataritza elkarteak martxoan jarritako kanpaina da eta txartelaren erabilera sustatzea du helburu nagusia.

Gabonetako saskiak

Lasarte-Oriako Aterpea Merkatarien elkarteak Gabonetako kanpaina jarri du martxoan, urtarilaren 5a arte.

Hamasei komertzio haien produktuetako sortak zozketatuko dituzte. Honela, denda hauetan erosketak eginez, zozketatzeko txartelak eskuratuko ditu herritarrak.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, lau bizikleta, bizikletarako kasko bat, hiru erloju, urrezko pultsera, erazten bat, neskaren eskumuturreko bat, eguzkitako betaurreko, telefono mugikorra, haur zamarra bat eta belarrirako batzuk.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrak, hilabeteko epean jaso behar

Ostirala, 16

20:00etan, Okendoko karpa
RUDE KANKA SOUND SYSTEM

22:30ean, Okendoko karpa
(5 EUROTAKO BONOLAGUNTZA LANGILENTZAT, LANGABEEK BORONDATEA)
OI SALIMOS, 40 D FIEBRE, LA KINKY BEAT eta
RUDE KANKA SOUND SYSTEM

Larunbata, 17

12:00etan, Okendoko karpa
GRAFFITI AZKAR LEHIAKETA, BREAKERRAK, FAMILI MBOLO PERKUSIO TALDEA, KULTO KULTIVO, BUNKER 13 eta ARRI JEFF RAP TALDEAK

12:00etatik aurrera, Kalean zehar
MUTHIKO ALAIK FANFARREA

13:00etan, Artizar taberna
IBAN NIKOLAI

Arratsalde osoa, Okendoko karpa
DJ BULL

17:00etan, Kalean zehar
MUTHIKO ALAIK FANFARREA eta FAMILI MBOLO PERKUSIO TALDEA

17:00etatik aurrera, Jalgi Kafe-antzerkia
LOUISE MICHEL eta RAS MIGEL TA FARI

18:00etan, Abend Kafe-antzerkia
FLATTENED FROGS MASSACRE eta A HUMAN DISASTER

19:00etan, El Bar de Mau
MAKULU KEN eta OREINDIK

20:00etan, Trumoi taberna ondoko labaderoan
PUS, KEEP DIGGIN eta THE TRIFASIKS

21:00etatik aurrera, Okendoko karpantik hasita
ZOZONGO BATUKADA

22:00etatik aurrera, Ilargi Taberna
A RASTA-K SOUND

22:00etatik aurrera, Jalgi Kafe-antzerkia
DJ BULL

22:30etik aurrera, Okendoko karpa
BUFFALO, EGIN PATCHANGA BAND, ANAIA-ARREBAK eta ADABEGI

Igandea, 18 Euskal Jaia

09:30ean, Kalean zehar TXISTULARIAK

11:00etan, Kalean zehar
ELKARTEEN KALEJIRA

12:30ean, Okendoko karpa
EUSKAL JAI GUNEAREN IREKIERA:
BERTSOLARIAK, BIYAK BAT ELKARTEKO
ABESBATZA, HERRI KIROLAK...

14:00etan, HERRI BAZKARIA
Bazkal ostean, EUSKAL KANTUAK eta DANTZA

17:00etan, LASARTE-ORIATARRAK DANTZARA ERROMERIA

du eta bazkide egitera. Abenduaren 23ra arte luzatuko da kanpaina hau.

Era berean, bazkide direnei laguntzen jarraitzeko deia egiten diete, "kirol egitasmo hau gauzatzea ahal izateko zuen diru-laguntza ezinbestekoa baita".

Hau guztiaz gain, elkarte-ko mendiko atalean federatu nahi duenak abenduaren 21a baino lehenago bulegotik pasa behar duela jakin arazi du.

dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dau den pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.


Ostadar SKT-ko loteria eta bazkide kanpaina

Ostadar Saiarre Kirol Taldeak jakin arazten du, aurten ere gabonetako loteria duela salgai, 92.646 zenbakia, hain zuzen ere. Erosi nahi duenak bulegoan eskuragarri du.

Bestalde, kirol taldeak 2012. urteko Bazkide Kanpaina hasi du.

Elkarteko kideek herritarrak animatu nahi dituzte Ostadarreko egoitzara hurbil-

Oharrak jartzeko:
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintzarri@txintzarri.info



IZARRA BITXITEGIA

www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY[®] A.I.E.

